

EDITORIALA

Antolatzea besterik ez dago

Aurreikusten genuena gertatu da: enpresa dezente jakinarazi diete langileei edo langileon ordezkariari zuzainaren 7a geroztik ez daudela aurreko hitzarmenen eraginpean. Patronalak halako aholkua eman zien enpresari eta hauetako dezente jarraitu. Confesk-eko lurralde patronalak ez dauden lekuetan bakarrik sinatu dira KPI-ren erreferentzia duten hitzarmen sektorialak eta erreformaren aurkako xedapenak. Nolako patronala den Confesk ez dago asmatu beharrik. Bestalde, Nafarroako patronalak lan baldintzak nabarmen aldatzeko tresnarekin, sektore-hitzarmen gehienak itxita egon arren, bertan behera botatzen ditu soldatak. Agerikoa da sektore-hitzarmena sinatze hutsa ez dela inongo bermea lan-baldintzak ziurtatzeko.

EAEko Lan Sailburu jaunak iragarri du beste saiakera bat egingo duela patronalak zapuztu zuen Lanbide-arteko Akordio berri bat lortzeko. Zein oreka ezarriko du Eusko Jaurlaritzak bere eremuan, esparru publikoan, negoziazio kolektibo suntsitu duenean? Ultra-aktibitateari muzin egin, soldatak gutxitu edo izoztu, enplegua suntsitu, laneguna handitu... guzti hori egin duen gobernuak zer eskaini diezaguke?

Egoera honetan are garrantzi handiagoa du antolamendu egokia izateak. Indar korrelazioan jautzia eman nahi badugu, barne egiturak propio langileengandik gertuen kokatu behar ditugu eta federazioen zuzendaritzak enpresetara gerturatu. Eskualdean bakarrik sortu daiteke beharrezkoa talde dinamika ardurak partekatzeko, lanak planifikatzeko, militantzia suspertu eta indartzeko, eta, finean, enpresatan plangintza lanak burutzeko. Helburua afiliazioa da, sindikalizazioa, horrek bakarrik ziurta dezake indar korrelazioa hobetzen dugula eta eraginkorrak garelako langileon eskubideen defentsan.

Hau egiteagatik kritikatzeko gaituztenok hobe lukete aztertzea zein baliabideekin, zein indarrek egin behar dioten aurre patronalaren oldartzeari. Antolamendua eta afiliatorik gabe ez da posible.

Joseba Villarreal destaca que cada vez son más las empresas en las que se han logrado acuerdos que invalidan la reforma laboral

"SEGUIMOS LUCHANDO PARA PARAR LA REFORMA LABORAL"

Lograr convenios que invaliden la reforma laboral. Ese es el principal objetivo de la semana de lucha y movilización que ha convocado ELA del 21 al 25 de octubre bajo el lema *Pelea por tu convenio. Soldata eta enpleguaren alde*. Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, analiza la actual coyuntura en esta materia dos meses después del 7 de julio.

-Han pasado más de dos meses desde el 7 de julio del 2013, fecha del fin de la ultraactividad de muchos convenios. ¿Qué lectura haces de la actual coyuntura?

-Por una parte nos encontramos con que cientos de empresas han notificado ya a sus trabajadores y trabajadoras que sus convenios ya no están vigentes a partir del 7 de julio o han puesto ya una fecha tope. Estas notificaciones, siguiendo las recomendaciones de Confesk, buscan aprovecharse de la pérdida de la ultraactividad para propiciar la rebaja salarial, verdadero objetivo de la patronal.

Además tiene una consecuencia inmediata: la discriminación de las nuevas contrataciones, que en la mayoría de casos se realizan en inferiores condiciones a las de aquellas personas que estaban en la empresa antes del 7 de julio.

Desde el 7 de julio hemos interpuesto varios cientos de reclamaciones, tanto individuales como colectivas. No había que ser muy listo para saber que la patronal iba a utilizar todos los instrumentos que la reforma laboral y de negociación colectiva le ha puesto en bandeja: facilitar y abaratar el despido, EREs sin obstáculos judiciales, inaplicaciones de convenios, descuelgues, desaparición de la ultraactividad, flexibilidad, imposición unilateral de condiciones de trabajo...

Por todo esto no quiero olvidarme de agradecer el magnífico trabajo que desarrollan las personas que componen los servicios jurídicos de ELA.

-Ante lo que describes, ¿qué plantea ELA?

-Pues seguiremos haciendo lo que hemos hecho los últimos 101 años: organizar y movilizar a la clase trabajadora vasca. A la gente hay que hablarle claro. En este sentido es necesario recalcar que las condiciones de nuestros convenios van a depender de la fuerza colectiva y la capacidad de organización que tengamos en cada centro de trabajo.

-ELA ha organizado las próximas semanas diferentes movilizaciones. ¿Cuáles serían?

-En primer lugar estamos en plena campaña informativa. Hemos publicado decenas de miles de boletines informativos en los que se dan las claves para entender la actual situación de la negociación colectiva y analizar qué podemos hacer para que la reforma no entre en nuestras empresas.

El lunes 7 de octubre, coincidiendo con el Día Internacional por el Trabajo Decente, celebraremos una jornada de formación en Donostia. El objetivo de la jornada será analizar, compartir y profundizar con nuestra gente en nuestras alternativas para hacer frente a la situación de la negociación colectiva. Posteriormente nos concentraremos frente a Adegí.

URRIAK 21-25 DE OCTUBRE

Mobilizazio eta greba astea
Semana de movilización y huelga

Pelea por tu convenio

Soldata eta enpleguaren alde



ANTOLATU ETA BORROKATU

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Pero, sin duda, tenemos que darle una gran centralidad a la semana de movilización y huelga que hemos organizado del 21 al 25 de octubre.

-¿Qué objetivos tiene esa semana?

-El objetivo es claro: lograr en todos los sitios donde podamos convenios que invaliden la reforma laboral. Es posible parar la reforma laboral, y para ello los convenios de empresa son nuestra mejor garantía. Tras la reforma, el convenio de empresa es el que tiene prioridad aplicativa sobre cualquier otro convenio. Es decir, es el único en el que pueden acordarse todas las garantías y el empresario tiene la obligación de aplicarlo.

-¿Es posible lograr este objetivo que plantea?

-Sí, por supuesto, y tenemos muchas pruebas que lo demuestran. En Euskal Herria hay cada vez más empresas en las que la reforma laboral no se aplica: empresas grandes, pequeñas y medianas en las que las relaciones laborales todavía tienen reglas de juego. Son empresas en las que la organización y la capacidad para la acción sindical han obligado a la

Lankidetu!



Joseba Villarreal destaca la importancia de la semana de movilizaciones y huelgas convocada por ELA del 21 al 25 de octubre para dinamizar la negociación colectiva.

empresa a pactar condiciones que limiten e incluso impidan la aplicación de la reforma. Son ya más de 200 convenios cerrados, son ya más de 200 centros de trabajo en los cuales la reforma no se aplica.

No comparto, en absoluto, la idea de que solo se puedan negociar convenios en las empresas grandes. Es más, hace ya mucho tiempo que en muchas empresas PYMES se negocian pactos y convenios. Ahora tras la reforma esto tiene todavía más importancia. Independientemente del tamaño de la empresa la reforma obliga a que lo que se negocie en la empresa tenga prioridad sobre cualquier convenio provincial o estatal. No depende ni del sector, ni del tamaño, ni del número de trabajadores/as de la empresa, sino de la capacidad para organizarnos.

-Ésta no es nuestra reforma, aunque nos acusen de querer aprovecharnos de ella...

-La reforma laboral y de negociación colectiva la aprobó el Partido Popular, no ELA. Es evidente que no es nuestra reforma. Nosotros lo que hacemos es adaptarnos a las nuevas reglas de juego para poder defender mejor a la clase trabajadora. En este sentido, el tiempo ha refrendado que nuestro análisis de la situación es el correcto.

El resultado de la negociación del Acuerdo Interprofesional ha demostrado, en cambio, lo equivocado de la estrategia de CCOO, LAB y UGT. Han planteado la negociación allí donde Confesbask ejerce el veto: en el Acuerdo Interprofesional y en los sectores que controla. Por eso, es aún más incomprensible que estos sindi-

catos renuncien a disputar a la patronal sus privilegios en aquellos ámbitos que la reforma posibilita como, por ejemplo, cerrando convenios en las empresas.

-Sin embargo, esos mismos sindicatos no paran en muchos casos de lanzar sus dardos contra ELA, incluso llegando al caso de mentir diciendo que hemos abandonado los sectores.

-Ya saben que eso es mentira, pero parece ser que les da igual. En lo que va de año también hemos firmado convenios sectoriales, siempre que recogieran cláusulas de blindaje contra la reforma y contenidos importantes en materias como salarios y empleo. En ELA no vamos a dar cobertura a la caída salarial que pretende la patronal firmando convenios que ahondan en esa vía. Podemos poner como ejemplos de sectores que hemos firmado Gasolineras de Gipuzkoa y Bizkaia, Papel de Gipuzkoa, Limpieza Viaria de Gipuzkoa...

Es cierto que a día de hoy hay sectores muy importantes como el metal que no tienen convenio sectorial, pero no podemos olvidar que el convenio sectorial ha dejado de ser mínimo y de obligado cumplimiento, por lo que la mera existencia del convenio no garantiza la aplicación del mismo. Es por ello que desde ELA hemos apostado por los convenios de empresa. Quien renuncia a negociar convenios de empresa está renunciado al único instrumento que tenemos los trabajadores y trabajadoras para blindar nuestras condiciones de trabajo.

Espainiako Gobernuak prestatzen ari den eraso honen aurrean, ELAk pentsioek izango dituzten galerei aurre egiteko osagarri bat bermatzea exijitzen die Hego Euskal Herriko administrazioei

PENTSIOEN AURKAKO ERREFORMA BERRI BATEN ATARIAN



2011n pentsioen erreformaren aurka deitutako greba orokorraren argazki bat

Espainiako Gobernuak pentsio sistema erreformatzeko urratsak ematen jarraitzen du. Irailaren 2an hainbat proposamen aurkeztu zizkien CEOE eta CEPYME patronalei zein UGT eta CCOO sindikatuak; proposamen horiek aldeztu aurretik eurek hautatutako aditu taldeak egindakoetan oinarritzen da. Espainiako Gobernuak iragarri duenez helburua urtea amaitu aurretik pentsio sistema erreformatzea da. Gauzak honela iraila amaitu aurretik lege proposamena Gorteetara eraman nahi du Madrilek, epeak lehenbailehen betetzeko.

Erreforma berri hau salatu asmoz ELAk agerraldi publikoa egin zuen irailaren 6an. Bertan gizarte arloko ardura-dun Mikel Novalek gogor salatu zituen PPren gobernuaren asmoak. "Proposamen horien xehetasunak jasotzen dituen dokumenturik ez dago. Hala ere aurreratu dutena -ekainean adituen batzordeak emandako gomendioak eurenak egiten dituztela- oso kezgarria da. 'Iraunkortasun faktorea' delakoa pentsioen doikuntza egiteko tresna iraunkor bihurtu nahi dute, eta honek ondorio nagusi bat izango du: pentsio berriak txikiagoak izango dira. Gainera,

egun pentsio bat kobratzen duten lagunen eros-ahalmena izugarri murriztuko da".

Erreforma honek ondorio oso larriak izango dituela salatzen du Novalek. "Gaur diru-sarrera eskasekin bizirauten ari den herritar asko eta asko areago pobretzeko estrategia da hau. Joan den uztailan kotizaziopeko pentsioen batez-besteko zenbatekoa 975 euro zen Nafarroan, eta 1.058 euro EAEn. Pertsona hauek erosteko ahalmena etengabe galtzera zigortu nahi dituzte, datozen urteetan pentsioak %0,25 baino ez baitira igoko. Honela pentsioduentzako beharko luketen diru kopuru handiak ez zaizkie iritsiko (%1eko igotera 1.000tik gora milioi dira urtean)".

ELAREN PROPOSAMENA

Espainiako Gobernuaren asmoa salatzearekin batera egoera iraultzeko alternatibak egon badaudela azpimarratu nahi du ELAk. "Onartezina da pentsioetan murrizketa gehiago egitea. Azken urteetan pentsio sistemaren aurka egin diren murrizketetan atzera egin beharra dago lehenbailehen. Hego Euskal Herriko erakundeek ere badute zer

esan gai honen inguruan. Erreforma gauzatuz gero pentsiodunei eta etorkizunean pentsio bat jasoko dutenei diru-sarrerak ez zaizkiela murriztuko bermatu beharko liekete. Horretarako pentsiodun guztiei osagarri bat bermatu beharko zaie, hartutako erabakiek eragindako diru-sarrera galeraren adin-koa. Horretarako ezinbestekoa da egungo zerga-sistema goitik behera aldatzea, bidezko fiskalitate bat garatuz eta zerga-iruzurraren aurka eginez. Gainera, ELAtik pentsioei buruzko legegia Euskal Herrian erabaki dadila exijitu nahi dugu".

Helburu horiek lortzeko mobilizazioaren garrantzia azpimarratu nahi du Novalek. "Gizartearen mobilizazioa da politikak aldarazteko bidea, eta horri jarraituko diogu. Zentzu honetan salatu egin behar dugu CCOOek eta UGTk gobernuari gai honetan ematen dioten babesak. Murrizketa latz hauek guztiak legitimatzen baitituzte adituen batzordean parte hartuta edo, orain egin duten bezala, erreforma proiektua hil honetan gauzatu nahi duen gobernuarekiko sasi-negoziatioan egonda".

Es imprescindible que las administraciones de Hego Euskal Herria garanticen un complemento equivalente a la pérdida que tendrán las pensiones con la reforma que ha propuesto el Partido Popular

LABURREAN / BREVES

● Propuesta de cambios organizativos

Como consecuencia del continuo proceso de renovación y adaptación de nuestro sindicato, tanto la semana pasada como ésta se celebrarán diferentes asambleas comarcales extraordinarias para ratificar la propuesta de cambios organizativos presentada por el Comité Nacional. Estos cambios afectan a varias de las comarcales de nuestro sindicato, y vienen a complementar los cambios en las Federaciones aprobadas en los congresos celebrados el pasado 4 de julio.

Estas son las propuestas a ratificar para el cargo de responsable comarcal en las distintas asambleas. **Bilbao:** Mikel Etxeberria (antes Sebas Andreu -ahora responsable de salud laboral de Araba); **Ibaizabal-Nerbioi:** Sergio Vázquez (antes Mikel Etxeberria); **Ezkerraldea:** Urizarri Irigoras (antes Maite Leizegi -ahora miembro de la permanente de ELA-Zerbitzuak); **Gernika-Durango:** Iñaki Arrieta (antes Urizarri Irigoras).

● ELA Diadan independentziaren alde antolatutako giza-katean

Kataluniako Asanblada Nazionalak deituta irailaren 11n -Diada eguna, Kataluniako egun nazionala- ehunka milaka lagunek parte hartu zuten El Pertus eta Alcarra herriak lotu zituen giza-katean. Ekimenaren helburua Kataluniaren independentzia eskatzea izan zen. ELAk bat egin zuen ekimenarekin, eta ordezkariak zabal batek bertan parte hartu zuen, sindikatuko idazkari nagusiaren-albokoak, Amaia Muñoa, buru.

Muñoak azaldu zuenez ELAk inbidiaz sanoz begiratzen dio gisa honetako ekimen bati, eta bat etorri zen independentziaren aldeko giza-katearen antolatzaileek egungo abagune politikoaren inguruan egiten dute irakurketarekin. "Estatuarekiko harremanetan ez dago inongo bilateraltasunik. Zentzu honetan erabakitzeak eskubidea egungo blokeo egoeratik ateratzeko tresna da. Estatuak behin betiko ukatu dio herri katalanari bere helburu nazionalak iristeko aukerarik txikiena ere; hala erakutsi zuen Estatut-aren prozesu bihurrian, eta oraintsu, finantziario eredu aldaketa ere baztertu duenean".

"Egoera puntu honetaraino iritsi delarik -gaineratzen du Muñoak- herritar katalan gehienentzat independentzia da proposamen politiko sinesgarri bakarra. Besterik ez dute nahi, estatuak erabat eta etengabe ematen baitie ezezkoa. Izan ere, Espainia ez da gauza subirano ez den edozerekin harreman bilateralak izateko".



● Ez dago benetako informaziorik EAJk eta PSE-EEK sinatu duten akordioaren inguruan

EAJ eta PSE alderdiek zergen, enpleguaren, gizarte zerbitzuen eta ekonomiaren alorren inguruko akordio zabalak lortu zuten irailaren 9an, hilabete luzetako negoziazioen ostean. ELAren aburuz ez da onargarria EAJren eta PSE-EEren jokabidea: propaganda egiteko informazio partziala eta iluna ematea, eta eztabaida soziala saihestea, politiken edukiei buruz. Zentzu honetan ELAk akordioa oso-osorik ezagutzera eman dezatela exijitzen du, beraren ondorioz hartuko liratekeen neurriekin, eta honen inguruko eztabaida soziala has dadila.

● 2012ko martxoaren 29ko greban Bilbon atxilotutako lagunen askatasunaren alde

Egun horretan deitutako greba orokorrean istilu larriak izan ziren Bilboko Justizia Epaitegian. Irailaren 11n, istilu horietan parte-hartzea leporatuta, lau gazte epaitu zituzten. Epaketa salatzeak hainbat gizarte eragile -ELA tarteko- ekimen ezberdinak antolatu zituen iragan astean, gazte horien kontra inolako frogarik ez dagoela salatzeak.

● Eusko Jaurlaritzak Lan-Arriskuen Prebentzioarako Fundazio Laboraleko funtsak eskatu ditu

ELAk lan osasun arduradun Leire Txakartegik salatzen duenez Jaurlaritzak baztertu egiten du eredu propioaren alde egiteko aukera, baita lan-osasunean ere. "Jaurlaritzak Espainiako Laneko Arriskuen Prebentzioarako Lan Fundazioaren funtsak eskatu ditu. Honek esan nahi du gai honetan ere Iñigo Urkulluren gobernuak Patxi Lopezen gobernuaren bidetik jarraitzea erabaki duela, eredu propio bat izateari muzin eginda. Azken finean lan osasunaren alorrean Jaurlaritzak Madrilen leihatila soila izatea erabaki du".

● Eskubide Sozialen Karta zirriborro proposamena urriaren 5ean eztabaidatuko da

Eskubide Sozialen Karta lortu asmoz lanean diharduten sindikatu eta gizarte eragileetako ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten irailaren 5ean Iruñean, azken hilabeteetan egindako lana aztertu eta etorkizuneko erronken inguruan hausnartzeko. ELAk gizarte politiken arduradun Mikel Noval pozik ageri da ekimenak daraman martxarekin, eta Eskubide Sozialen Kartaren zirriborroa urriaren 5ean eztabaidatzeko moduan egongo dela aurreratu du.

● Acuerdo en Lázaro Echeverría

Tras más de seis meses de huelga y movilización la plantilla de Lázaro Echeverría -empresa del metal situada en Altsasu- ha logrado un acuerdo con la dirección. Gorka Vierge, responsable de ELA en Sakana, destaca que pese a no lograr el principal objetivo -la consecución del convenio- se ha logrado un pacto de empresa para 2013 y 2014 -con un periodo de ultraactividad hasta el 2015- que ha logrado anular gran parte de las imposiciones de la patronal.

"El no haber conseguido nuestro mayor objetivo no es un obstáculo para poner en valor la lucha y la pelea que han llevado a cabo los trabajadores/as. Esta lucha ha posibilitado ponerle freno al chantaje que planteaba la empresa, que aprovechando la reforma laboral ha tratado de tirar por tierra los derechos laborales y salariales obtenidos mediante la acción sindical durante décadas. La lucha de los trabajadores/as de Lázaro Echeverría pone de manifiesto que sólo en aquellas empresas con una fuerte sindicalización (toda la plantilla de Lázaro Echeverría está afiliada) y un concepto de unidad y de solidaridad va a ser capaz de hacer frente a una patronal que se siente muy fuerte y muy protegida".

● Amaia Car-Talleres Gazteluko langileak 100 egun greban

Amaia Car-Talleres Gazteluko langileek maiatzetik daramate greban euren lan baldintzen alde. Zuzendaritzak soldata jaitsiera handiak inposatu nahi dizkie langileei, beste zenbait eskubide murriztearekin bat. ELAk zuzendaritzari neurri horietan atzera egitea exijitzen dio, eta langileak lan erreformaren aurka blindatuko dituen enpresa-hitzarmen baten alde borrokan jarraituko duela iragartzen du.

● 35/02 sumarioko auzipetuekin bilera

ELAren ordezkariak bat 35/02 sumarioko hainbat auzipetuekin bildu zen irailaren 10ean Donostian. Bileraren helburua lagun horiei elkartzatzea eta langile mugimendutik gure sindikatuak eman dezakeen laguntzaren eta babesaren berri ematea izan zen. ELAk gogor salatu nahi du urrian hasiko den epaketa hau. "Auzi erabat politikoa da, auzipetuen aurka inolako frogarik ez duena. Epaketa gogor errefusatzeko dugu, eta bertan epaituko dituzten lagunei gure elkartzatzea adierazi. Ezinbestekoa da lan mundutik ere bidegabekeria hau salatzea".

IRITZIA / OPINIÓN

KATALUNIA, INDEPENDENTZIAREN BIDEAN

Irailaren 11n Kataluniaren independentziaren alde egindako giza kateko partaideen alaitasuna ilusioaren ispilu zen. Geldiezina den mugimenduaren baikortasunak sortzen duen ilusio nabarmena zen ekintza honetan parte hartu zuten milaka eta milaka pertsonen artean. Kataluniako independentzia posible dela eta urratsak emateko ordua dela sinesten dutenen ilusioa. Marea geldiezina bihurtu denaren indarra nabarmena zen eskuz esku hartuta zeudenen artean.

Arratsaldeko 17:14etan, Kataluniak Borboien aurka gerla madarikatua galdu zuten urtea nabarmenduz, ehunka mila independentistek Katalunia lotzea lortu zuten. Hori posible egiteko ANC-ko 30.000 boluntario mobilizatu ziren, 700 zatitan banatzen zituen *on line*-ko sistema informatikoa eta 1.500 autobus antolatu behar izan zirelarik.

Diru eta erakunde ofizialen gaitik ilusioak hartu zuen lekua. Herritarren ilusioa bozkario handi bat bihurtu da, politikariak eta erakundeak gaindituz. Gizarteak aurre hartu die politikoei eta erakunde publikoei egoerari buelta emanaz. 2010an Epaitegi Konstituzionalak Estatutua erasotu zuen, herritarrak kalera ateraraziz. Manifestazio jendetsuak izan ziren, baina Espainiako gobernuak berean jarraitu zuen. Herriaren haserreak hartu zuen orduan kalea. Gaur aldatetaren nahiak eta ilusioak hartu ditu kaleak. Via Catalana deritzonak independentziaren aldeko urrats berriak eman ditu. Bien bitartean, Madrilgo gobernuak ez du ezer jakin nahi izan, eta bere politika kolonizatzailearekin darrai. Giza kateko kide batek zioen bezala, politika honekin independentistak egin eta egin dabil Madrilgo gobernuak.

Estatuari beldurra galdu zaio, eta aldatetaren ordua iritsi dela sumatzen da. Isaiah Berlin idazleak zioen 1979an idatzitako lan batean: "mugimendu gutxi egingo dute aurrera aldarrikapen nazionalekin batera ez badoaz". Kataluniako herriaren nahia argia da, eta orain politikaren garaia heldu da ilusioa zapuztu ez dadin.

Herri baten duintasuna dago jokoan. ELAk ez zuen aukera historiko honetatik kanpo egon nahi izan, eta Bartzelonako Passeig de Gràcia izan zen Kataluniako independentistekin eskuz esku. ELAk inbidia sanoz begiratzen dio halako mobilizazio handi bati eta, horregatik, Kataluniako herria zoriondu nahi du.

Juan Antonio Korta



Gaizka Miguel, responsable de ELA en Bizkaibus, denuncia que la Diputación de Bizkaia pretende destruir empleo y empeorar la calidad del servicio

PAROS Y HUELGAS EN BIZKAIBUS



Gaizka Miguel, responsable de ELA en Bizkaibus, alerta de las graves consecuencias que supondrá el proceso de licitación iniciado por la Diputación

Foral de Bizkaia –si se desarrolla en los términos publicados– para las cinco zonas en las que se va a dividir el transporte público por carretera en Bizkaia. Precisamente, con el objetivo de paralizar este proceso cientos de trabajadores y trabajadoras de Bizkaibus se movilizaron por las calles de Bilbao el 11 de septiembre. Gaizka Miguel anuncia que en el caso de que la Diputación no dé marcha atrás se convocarán nuevas movilizaciones, incluyendo paros y huelgas.

-La Diputación Foral de Bizkaia ha publicado los pliegos para las licitaciones de las cinco zonas en las que se va a dividir el transporte público por carretera, el servicio Bizkaibus. ¿Qué valoración haces?

-Muy negativa, pues supondrá destruir empleo y empeorar un servicio público. Con los nuevos pliegos la Diputación elimina, por un lado, 15 líneas urbanas e interurbanas. Además aumentan las frecuencias en otras líneas

as y desconocemos exactamente la nueva regulación de líneas y servicios. Sin olvidar que en ningún momento plantea realizar las mejoras indispensables en las líneas que lo necesitan.

De este modo la Diputación pone en peligro, según informaciones publicadas, 300 puestos de trabajo y no asegura que las personas que estos últimos 25 años han venido ofreciendo el servicio vayan a poder continuar haciéndolo. Ni siquiera asegura las condiciones de trabajo de las personas que vayan a prestar dichos servicios.

Es sorprendente que una Diputación que se ha manifestado en contra de la Reforma Laboral no asegure unas condiciones de trabajo mínimamente dignas en los pliegos de condiciones de servicios públicos bajo su competencia.

-Para denunciar estos recortes la plantilla de Bizkaibus ha anunciado movilizaciones. ¿En qué consistirán?

-Desde ELA, LAB, CCOO y USO vamos a iniciar un proceso de movilización del conjunto de Bizkaibus con paros el día 24 de septiembre, huelga el día 26 y un día más de huelga cada semana, hasta la paralización total del servicio entre el día 21 y 27 de octubre.

La Diputación ni tiene en cuenta el valor que tiene el transporte público para la cohesión social, ni la importancia económica que tiene como generador de actividad, ni las consecuencias

medioambientales de un servicio deficiente, ni las consecuencias en el tráfico viario... Es evidente que mientras mantenga esta actitud nos tendrá enfrente.

-La diputada de transporte ha asegurado que la Diputación "garantizará el derecho de subrogación de las y los trabajadores"...

-Si hay una cosa que ha quedado clara durante todo este proceso es la nula socialización y búsqueda de planteamientos alternativos que permitan materializar un servicio de Bizkaibus de calidad, dado que no ha existido negociación del anteproyecto con sindicatos, agentes sociales y partidos políticos.

En sus primeras declaraciones públicas tras las movilizaciones del 11 de septiembre solo hablaba de forma vaga de la subrogación, pero sin adquirir ningún compromiso, remitiéndonos a negociar los listados de subrogación con las empresas que prestan el servicio en la actualidad. Si tan preocupada está por el transporte público desde ELA le trasladamos cuatro reivindicaciones que de cumplirse acabarían con la conflictividad en Bizkaibus: no eliminar líneas urbanas, implantar nuevas líneas y mejorar la frecuencia; no eliminar ningún puesto de trabajo; garantizar la subrogación de la plantilla actual de todas las empresas; y, por último, mantener las condiciones de trabajo basándose en los actuales convenios asegurando su aplicación indefinida.

"Bizkaiko Foru Aldundiak errepide bidezko garraio publikoa banatuko den bost eremuetarako hasi duen eskaintza prozesua gelditu nahi dugu, enpleguaren galera handia eta zerbitzuaren kalitatearen jaitsiera nabarmena suposatuko duelako"

www.ela-sindikatu.org / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA 

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatu.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**